

Ramon Saizarbitoria

martutene



BAKANAK

HARRI GABILONDOK GOZAMEN BATEAN egin du gertalekuaren deskribapena, kontakizunaren harrigarriaz sinetsia. Ezer kontaktzen duen aldiro dirudi uste horretakoa, alegia, harrigarria eta miresgarria deritzola esaten duenari. “Ez didazue sinetsiko gertatu zaidana”, esango du, adibidez, eta horren suhar eginiko iragarriaren ondotik etorri ohi dena nahigabetzeko modukoa egin ohi zaio Juliari, eta sobera luzea gehienetan. Luzeegiak zaizkio, begi gris haietatik begiratua kendu ezinik, kontakizuna administratzeko egiten dituen pausak, eta espantuzkoak kontatzaileak bere buruari eragiten dizkion harritu edo miretsiaren adierazpenok, entzuleari sortzen dion zirrara eskasaren aldean bereziki.

Juliak badaki kontakizunaren lehen bertsioa amaitu ostean berriro adierazgarrietako dauzkan pasarteetara itzuliko dela, baliotan paratzeko asmoz, eta begiak ongi zabalduz “Zer iruditzen?” galdetuko duela, “¿Qué te parece?” atertu gabe tartekatzen duen gaztelanian, hitzean eta hortzean darabilen lelo betegarri bat besterik ez den arren “Zer iruditzen” hori, eta bera bazter utziz Martinentzat esaten duela iruditzen zaio.

“Zer iruditzen?”

Harriren desiorik handiena da bera pertsonaia gisa azalduko litzatekeen istorio bat inspiratzea Martini. Dohakabea ez da haren arreta luzaz mantentzeko gauza ordea, halako batean soak libururen baten orrietara alde egiten baitio ez badu disimulurik gabe telebista pizten, eta halakoetan Juliak entzun arreta areagotu egiten du erremin ez dadin, ahalegina guztiz alferrikakoa

izaten bada ere, Martinek entzutea baita inporta zaiona Harriri, eta adei-tasuna hausteraino haserretzen da beti “Ez didazue kasurik egiten”, plurala erabiliz.

Edozein gisaz, portaera horrek barrua eztitzen dio.

Oraingoan maitemindua dagoela esan die, “Un flechazo”, imintzioak areagotuz, eskua paparrean, begiak itxita. “Ez duzue sinetsiko”.

Gamelu ileko beroki berria kentzeko lanik ere ez du hartu, “Ikaragarrri garestia” berokia –Juliak zimurtu egingo zaiola, pena dela–, ezin aitor-tua gainera, lotsagarria delako Londonen zenbat ordaindu zuen –badaki azkenerako galdetu gabe esango duela–, ederra eta leuna bai, baina “Oso señora” egiten duena eta lehenbailehen nahi luke oihal onari bakarrik ongi ematen dion erabiliaren itxura hori hartzea. Alaba “kontentziosotik” urruntzearren Surreyko barnetegi batean lagatzetik zetorrela aireportuan begiztatu zuenetik interesatu zitzaion gizon hura. Ez dakiela zergatik dio, itxu-raren aldetik euskal herritar petoa zenez: bizardun, koardrotako alkandora eta panazko galtzak, bere adinekoa hor nonbait, berrogeita bost inguruan, intelektual tankerakoa, unibertsitateko irakaslea ziurrenik, Humanitate eta Gizarte Zientzien alorrekoa, hori adierazten zuten halaber motxilaz gainera liburuz kargatuta zeramatzan plastikozko bi poltsa handiek. Beste askoren antzeko gizona, zerbait berezia zuena nolana ere, han bazegoen zer edo zer berak atzema, argi pindartsua begian, berotasun bat. Aurrez aurre zeu-den jesarrita. Gizonak izenburua ezin ikusi izan zion liburu bat irakurtzen zuen, aurpegia hobetzen ez diotenez ez zituelako betaurrekoak jantzi, baina noizbehinka burua altxatu eta begiratu egiten zion, ez irudian bezala lehenik, zuzen, lotsarik gabe gero. Bere alboko jesarleku biak hartuta zeu-den zoritxarrez, ziur baitago bestela ondoan jesarriko zitzaiola. Ziur dagoela berretsi du. Gizonaren alboan bai, bazegoen aulki bat libre, eta damu da orain ez zelako jesartzen ausartu. Damu da, hala berean, bidaian zimurtzeko beldurrez hain ondo ematen dion zeta beltzeko blusa eta galtza konjuntua ez jantzia praktika bakeroen ordez.

Kontakizuna luzatzeko ohitura horrek bere onetik ateratzen du Julia azkenerako, ia beti debaldetakoak diren xehetasunak emateko tema horrek. Bere joera arras bestelakoa delako ziurrenik. Martinek zuzenegia izatea aurpegiratu ohi dio, baina presatia esan nahi duela uste du, eta ez zaio arrazoi-rik falta, pertsona bat edo bi baino gehiagoren aurrean zerbait kontatzeari eki-ten dionean ikara etortzen baitzaio aspertu egingo dituela pentsatuta, eta

horren ondorioz presaka hasten da, xehetasunak saihesten, piper eta gazi guztia galtzen alegia, baina denak dauka muga bat, eta mugan nahiago kasik bera den bezalakoa izan. Laburtzeko eskatu dio beraz, mamira jotzeko behingoz, lana zain daukala aipatu gabe. Irrikan dagoela ere badiotso asperdura estaltzearren eta, behingoagatik, nahiz beti kexu izan astuna eta gogaikarria delako, Martinek aurpegia atera dio berari kontra egitearen plazer hutsagatik.

“Jainkoak xehetasunak maite ditu” dio beste norbaiten hitzak erabiliz, eta berak deabruari zaizkiola gustuko esatekotan egon den arren –esaldi mordoia dauka jasoa xehetasunen balio gorenaz: “Errealitatea xehetasunak baino ez dira”, Márai; “Xehetasun txikien santutasuna”, Blake; Nabokoven hain ezagun hura, ahantzi egin zaiona–, lotu egin du mihia, bakeagatik eta gehiago berandutu gabe Harrik lehenbailehen berrekin diezaion kontaktizunari. Berez duen sena nahikoa ez eta, Martinen hitzok bidea eman diote hitz bakoitza patxadaz gozatuz jarraitzeko begi grisak zabal batari eta besteari begiraturaz, egiten duen galderaren zorrotzak bere burua harrituko balu bezala: zergatik ote dira progreak eta kultura alorreko gizonezkoak, oro har, exekutiboak baino hozberago? Zilegizkoa omen da galdera, batzuk jertse lodiz, tabardoz eta bota handiz jantziak ibiltzen direlako, eta besteei berriz badirudielako aski zaiela alkandora, jaka, gorbata eta ahuntz larru fineko oinetakoekin. Gakoa gorbatan dago, elementu bereizgarri nagusia denez. Hori guztia gizon hark koadrotako alkandora, artilezko jertsea eta panazko galtza berdeak ez ezik soinean montgomery urdina zeramala esateko, eta azkenean, Martinek, arestian xehekerien santutasunaren inguruan esandakoaz damututa, xehetasunak bat direla eta bestea digresioa bota baitio harira jotzeko aginduz, oso urduri jarri zela esanez jarraitu du kontsideratzen hasi zelarik berari egokitzen ote zitzaion zegoen lekutik gizonak ezkerrean libre zeukan aulkira aldatzea, eta erabakitzeko zegoela, esan duen bezala urduri, bere alboan zeukan exekutiboa izan zela, franelazko traje mehe batez jantzitakoa, altxatu zena, eta orduan itxarotea deliberatu zuela, ziur zegoelako gizona izango zela hurbilduko zitzaiona libre geratu zen aulkian jesartzera.

Badaezpada, eskuarte zabalik zeukan liburua itxi eta poltsan gordetzeko ardura eduki zuen, gizonari irakurketa desegokia iruditzen ahal zitzaiolako, Jon Juaristiren *El bucle melancólico* izaki. Idazle horri boikota egiteko asmoa zeukan, besteak beste ez zuela gehiago asasi noen hizkuntza erabiliko esan zuelako, baina Julia izan omen zen irakurtzera behartu

zuena, liburuak hagitz ongi idatzia dagoela eta egilea polemista handia dela eta polemista handiek erasotzen dituzten jarrerak hobeto ulertzen laguntzen dutela argudiatuz.

“Zu zara erruduna”, bota dio *El bucle* irakurtzeko gomendioak aireportuko gizonarekin elkartzea arriskuan ipini izan balu bezala. Baten bati irakurria da bidaietara eramateko liburuak jantziak bezala aukeratzen dituela: liburu chic, ukitu serioa ematen dutenak, paseorakoak, gazte ematen dutenak, serio egiten dutenak, espiritualtasuna darienak. Non zabaltekoak diren. Irribarrea sortu zaio Juliari norbait oroitutakoan eta Harrik hatz batez seinalatu du haserre: “Zeu izan zinen behartu ninduzuna, gogoratzen?”. Akorduan du ordukoan argitu ziola, Gorzen “Ez naiz alemanez mintzatuko” esaldi famatu hartan inspiratutakoa, ezin desegokiagoa bistan denez, probokazio hutsa zela, baina ez zegoela literalki hartzerik, asmo erretorikoa zeukalako agidanean. Gainera ez zen Jon Juaristi izan bota zuena, harirako batere axola ez zaion arren: azkenean, gizona alboan jarri zitzaion ala ez? “Ezin izan zuen”. Buruarekin ezezkoa eginez etsipen adierazgarri. Gertatu zen, gizona zutitu bezain laster ontziratzeko deia egin zutela hurbiltzeko astirik eman gabe, mundu guztiak korrika ekin ziola atzerantz eta berak ere altxatu egin behar izan zuela.

–Zer iruditzen?

Telefonoak jo duenean hartzera oldartu da Martin, egongela eta laneko aretoa banatzen dituen liburu apalategiaren bestaldera. “The penthouse girl”, dio, animatuta. Bi emakumeek isilik diraute ingelesez mantentzen duen solasari erne. Martinek aise egiten du nahiz arrunt ahoskera traketsez, ez duelako fonetikaren arauak errespetatzeko ahaleginik mendreana egiten. Ahoskatze maila duina lortzea ezinezkoa denez alferrikakoa iruditzen omen zaio, eta baita estilo falta ere imitazio barregarri bat egitea. Trebea da oso bere ezintasunak sublimatzen.

I was waiting for your call. Aise ondorioztatu dute atikoa eskaini dion emakumearekin ari dela, kokagunea azaldu baitio Belle Époqueko kale-jaurerigi bat ibai ondoan –trenbidetik gertuago dagoela saihestuz– lorategi handi batekin, arbola ederrez hornitua, haien artean magnolia grandiflora izugarri bat gorai patuko luke, isolatua beraz, zertxobait deprimetua egonagatik hirigunearekin ongi lotuta dagoen auzoa.

Ederki komunikatuak daudela lurrez, itsasoz eta airez ia esan du, bere txantxari barre eginez. Juliari amorrua eman dio solaskidearekin erakusten

duen atsegintasun demasak, eta Harrik norekin ari den galdetu dionean erantzuna da ez daukala ideiarik, ez baitu ezkutatu nahi haserre dagoela, ez duelako jakin goizean bertan esan dion arte etxea alokatzeko asmotan zegoela. Berea da etxea eta eskubidea dauka nahi duena egiteko, baina zalantzaren erregea baita, min ematen dio edozer huskeriagatik duda-mudaka ibiltzen delarik hain xedeko eta independente izateak nolabaiteko garrantzia duten gaietarako.

Gainera, susmoa du, etxebizitza alokairurik kobratu gabe edo erdi dohainik uzteko asmoa daukala aitortzen ausartzen ez den arren, ez diezaion aurpegira bota hor zehar eskuzabalarena egiten dabilela –lagun batzuek adarra jotzeko jarri dioten Martuteneko Markesaren tituluari ohore eginez– gero kexaka jarduteko profitatu egiten zaizkiola eta jendea esker txarrekoa dela. Ez dira bere eskuzabaltasunaz profitatzen, harrokeria ergelaz baino.

Garraibiderik erosoena trena dela, azkarra eta tenoreko heltzen dena, eta nahi duenean etorri litekeela, beti dagoelako etxean preso. Etxea alokatu behar dion emakumearekin Martinek darabilen solasari entzungor egin eta Harriren alabaz interesatzea erabaki du. “Zer moduz Harritxu?”. Azkeneko kurtsoan eliteko ikastetxe batean sartu zuen –erbesterratu, dio berak– giro erradikaletatik aldentzeko. Erabaki zaila, neurri handian Martinek inspiratua, Martxelo senarraren iritziaren eta nes karen gogoaren kontra, baina azken hilabeteetan burua beste ezertarako eduki ez badu ere, gaur ez zaio gaia interesatu. Liburutegi alderantz begiratu du, Martinek entzun ahal ote duen neurtuz antza, ahotsa apalduz halako estali kutsu batekin hitz egiteko, Juliak ongi dakien arren orain sekretuan esaten diona xehetasun gehiagorekin errepikatuko duela bestea entzutera izango duenean, eta hala diotso, aireportuan sentitu zuen frenesiaren neurria har dezan, momentu hartan, ontziratzeko deia egin zutelarik, Martxelorenganako gorroto itzela sentitu zuela, Loiun itxaroten izango zuelako babalore aurpegi harekin eta berarekin etxeratu behar zuelako, Londoni buruzko inozokeriak kontatzera, ospitaleko lanaren inguruko kontu txarrak entzutera, afaria prestatzera. Bila joatea eragotziko liokeen zer edo zer gertatzea desio izan zion, istripuren bat, edozer gauza, badaezpada, gizon ezezagun hura Bilbon inoren zain ez bazegoen berak eraman zezakeela proposatzera hurbilduko litzaiokeen kasuan harekin alde egin ahal izateko.

Eskegi ondoren, hitz egiten aritu den maizterraren ezaugarriak eman dizkie Martinek: neska amerikar gaztea, biziki interesgarria eta uste duenez

soziologoa. Ez omen du kaltetuko beren intimotasuna, atikoak eskailera kiribil independentea duenez. Gero, Harri lasaitzeko, alokatzera behartua egoteko diruz gaizki ote dabilen galdetu baitio, ezetz esan dio, penthouse neska bat edukitzeko apeta izan duela besterik gabe, eta sasitxantxa bota ondoren, ulertu ez ote duten beldur, argitu egin die penthousek luxuzko atikoa esan nahi duela ingelesez. Juliak dakienez, luxuzkoa izateaz gain, etxe multzo garaietan behar dute atikoek, penthouse izena merezi izateko. Esaten ahal dio egokiago datorkiola chambre de bonne izena bere etxeokari, eta jakin nahi lukeela bietako zein dagokion maizter horri, baina isilik dirau, besteak beste Harrik, benetako arranguraz nonbait, lelokeriak alde batera utzi eta diru egoeraz egia esateko eskatu baitio. Ez duela arazorik berretsi du; besterik gabe, erabiltzen ez duten etxeko parte horri errentagarritasunik ez ateratzeak kontzientzia txarra ematen dio, horregatik alokatu duela. Hori esan ondoren, eta gaia saihesteko asmo nabarmenarekin, telefonoz ari zen bitartean ezin entzun izan duena kontatzeko eskatu dio Harriri, eta honek, irrikatan egonik ere, muzin egin du “Gure gauzak” edo “Emakumeon gauzak” adierazteko gisan.

Nabarmena da Harriren poza kontakizuna jarraitu ahal izango duelako, baina muzin egin du “Gure gauzak” edo “Emakumeon gauzak” adierazteko gisan, keinu barregarria benetan, besteak beste Martinekin konfiantza handiagoa duelako, nerabeak zirenetik datorkie harremana, lizeo frantsesean elkarrekin ikasi baitzuten. Julia berriz parvenuea da, Harrik gogorazi ohi dion bezala bien arteko konplizitate lerdetsuaz kexatu izan denetan. Ez dute sekretu handirik bien artean, alderdi askotan ezinago antzekoak dira –arimakide, Harrik esango lukeen moduan–, elkarri isilekoak kontatzeko ohitura kritikagarria dute, eta ziur da jakinaren gainean dagoela Martinekin duen harremanaren alderdi intimoenez.

Entzutea zinez gogorra egiten den arren, ez datozkio esanari milikeria horiek senarrarengana sentitu zuen gorroto eta mespretxua kontatzeko, eta halaxe, benetan ari dela disimulatzeko erabili ohi duen imintziazko doinuan Martinen atzartasun ezaz kexatu ondoren –bera, emakume zintzo eta senarrari fidela, aitortzen ari zaio ezezagun batengatik edozein zorakeria egiteko prest legokeela eta bera play-boy neskez hitz egiten eta etxebizitzak telefonoz alokatzen hasi zaio–, kontakizunari ekin dio jarraian utzitako puntutik, hots, ontziratzearetoan, aldamenean, eskuinean zehazki, leku bat libre geratzen den mementoan, gizona altxatu egin baita motxilarekin

eta liburuz betetako plastikozko poltsekin. Bi pauso eman ditu bereganantz kolkoan behor izutu bat iduri bihotza galopan hasi zaiolarik, baina istant horretan ontziratzea iragarri dute eta ez du beste erremediorik altxatzea baino, aulkian pozik geratuko litzatekeena hegazkinari aireratzen utzita.

Jesarrita geratzen ausartu izan balitz gizonaren begiradari eusten, hura ere geratu egingo omen zen. Ez du zalantzarik. Damu da orain apustu hori ez egina, gizonezkoak beldurti hutsak direla jakinik. Eta ontziratzeko aretoan bakarrik geratu behar izan balu hegazkina gizonarekin nola aireratzen zen ikusten, ez omen zitzaion axola izango. Ahalegindu izanaren kontsolamendua edukiko luke. Orain amets egiten du adorea izan zuela eta gizona alboan jesartzen zaiola, isilik irauten dutela megafonoek Bilborako bidaiariei azken deia eginez beren izenak errepikatzen dituztelarik eta hegazkina beroriek gabe zeruratzen dela ikusten.

Imajinatzen eszena? Martini zuzenduz, “Ez al zaitu inspiratzen horrek?” esango balio bezala. Nahigabearen aierua. Ez zuen izan orain soberan lukeen adorea. Zentzuna inposatu zitzaion tamalez, lerroan jarri zen, aspaldian egin gabe bezala otoitz eginez bion lekuak elkarren ondoan egoki zitezen. Ez du halako suerterik izan ordea. Bera jesarri da lehenik, gizona sarreran geratu baitzen edo geldiarazi baitzuten, ez daki ziur zergatik, bere motxila-poltsekin zerikusia zuen zer edo zerengatik ziur asko, eta korridorean aurrera ikusi duenean, trabeska, poltsa bat aurrean bestea atzean dakartzala kabitzen ez direlako, begiradek topo egin dute, irribarrea luzatu dio gizonak, atsegintasunez, kokotsa harrotuz diosal gisa eta berak ere irribarre egin dio natural azaldu nahian baina ausarkeriaz apurtxo bat lotsatuta, eta kasik bere parera iritsitakoan, bizpahiru lerro lehenago, poltsetako bat, aldakaren kontra aurrean dakarrena, espero zitekeenez, lehertu, eta hamar edo hamabi liburu edo gehiago erori zaizkio zolara.

Kokoriko makurtuta jasotzen ahalegintzen da gizona, izterren eta kolkoaren artean pilatzen ditu bildu heinean, baina jausi egin zaizkio berriro. “Joder” esan du, hemengoa dela egiaztatzen diona, “joder”, azentua lehen silaban markatuz, ez dirudi beraz izugarri gaitzitua, fina behar du izan, ez estutua edo urduritua ibilbidean traba eginagatik, atzean lerroan zain daudenek bai, laguntzeko keinurik egin ez eta beren egonarriaren motza nabarmenki erakusten dutela.

Bitan pentsatu gabe altxatu da Harri ganorako, kutxatik Harrodseko bi zorro atera, baten edukia bestera hustu eta eskaini egin dio. Gizonak

irribarrea berriro, esker onekoa orain, eta lagundu egin dio lurrean barreiatu liburuak jasotzen, biak kukubilko, bekoz beko, hura atzekoei egiten dien trabari bostaxolatua, eta bera gertaturen baten zain, zerbait jazo dadila desiratzen, bihotza taupaka, zoramen batean gizonak azkeneko liburuaren bila besoa luzatu eta bien eskuek ukitu dutenean.

Hondartza bat ageri du azalean liburuak, hondartza bat etzaulki huts birekin eta itsasfarola bat hondoon. Gizonak liburua ireki eta irakurri egin du, “This book was written in good faith” oso poliki, osoroko patxadan, hegazkinean biek bakarrik baleude bezala eta ez, dauden antzera, larri ageri diren bidaiarien oztopo, eta eskaini egin dio ingelesez hark “It’s a present for you” ere esaten diola, baina berak, inozo alaena, ez du hartu, azaleko irudiari so geratu da pentsatzeko gauza ez dela, edo hobeto esanda, ezertarako gauza ez dela hondartzak iparraldeko hondartza bat zirudiela pentsatzeko baizik, belar motots haiekin, hondarretan itzal luzea proiektatzen zuten bi etzaulki hutsekin, lur mihia hondoon, gerrian xingola gorri bat zeukan farola zuriarekin.

Oso ondo gogoratzen dela dio, eta gizonak “It’s for you” eskaintza berretsi zuen arren berak ez zuela aintzakotzat hartu, zutitu egin zela azafata baino areago institutriz ingelesa zirudien batek beren lekuetan jesar zitezela erregu egin zienean zakar. Ezin duela libururik onartu diotso gizonari, ergelkeria bat, eta gizonak liburua luzatuz emateko keinua errepikatzen duenez, ez duela ingelesez irakurtzen esan dio, beste ergelkeria bat, ezjakinaren aitortza zabarkeriatzat har zezakeelako, egia esan gaur egun nork ez du ingelesez irakurtzen apurreneko kultura maila baldin badu behintzat, eta irakurtzen baitu gainera, laneko ia paper guztiak hala dauzkalako, nahiz nobelarik ez, hori esan nahi zion baina ez zuela ingelesez irakurtzen irten zitzaion, pazientzia gutxiko bidaiariek bultzatuta bere lekura itzuli baino lehen.

Ez zuten gehiago hitz egin geroztik. Haren ahotsa entzun zuen lerro batzuk atzerago, aireratu baino lehen, eta ulertu uste izan zuen leku aldatetaren bat egin zuela banandua zegoen bikote batek elkartuta bidaiatu ahal zezan. Bidaiaren joanean whisky bat eskatu zuen, azafatari barrea atera zion zer edo zer esan zuen, eta berari ere sarritan atera zitzaion barrea, gizon gordin eta sensual bati dagokion barre lasai alaia, inondik ez larregia edo arrunta, ozena eta mardula izanagatik, eta haren ondoan alaitasuna konpartitzen egoteko desira areagotu zion. Zer iruditzen?

Omen, bakarrik, hodei gainetik hegaldatzen zelarik konturatu zela bakan egiten zuela barre. Ez zeukan iristeko gogorik, gizonaren usaina osteraz sumatzeko irrikan zegoen –gogora ekarri lezake begiak itsututa: pipa tabakotik baduena eta mendabelar ukitu bat beharbada, eta artilearena eta berea, haren azalarena–, oraingoan erabatekoa izan zela lurreratutakoan garraio uhalean haren ondoan kokatzeko asmoa, besterik ezean horretarako behintzat, haren usaina aditzeko berriro, eta aukera emateko inor zain ote zeukan galde ziezaiola, taxi bat hartzeko proposamena egin nahi baldin bazion elkarrekin Bilbora joateko edo munduko beste edozein lekutara. Aukera horrekin fantasian aritu zen, eta horretan ari zela sekulako herra sentitu zuen Martxelorengana, hantxe edukiko zuelako. Zerbait gerta ziezaiola desiratu omen zuen, bila joatea eragotziko ziokeen zernahi, berdin zitzaion istripuren bat, gizon ezezagunaren ondoan egoteko ausazko urrunekoari aukera eman ziezaiokeena izanez gero. “Inoiz ez zait antzekorik gertatu, ezta zurekin ere –kokotsaz Martin seinalatuta–, hain erakartasun bortitza sentitzea, hain fisikoa. Ez al didazu sinesten? –kokotsa berriro goitituz. “Zin egiten dut nire senar baboa gorrotatu nuela, gorrotatu nuela nire alaba petrala, maitasun guztiez askatu nintzen, atxikimendu guztietatik nintzen libre gizonaren atzetik joateko keinu bat egingo zidan orduko”.

Oraingoan ez du esana “Zer iruditzen?” ohikoarekin burutu. Altxatu egin da alde egiteko asmoa balu bezala. Zutik dirau haatik gelaren erdian, lorategira ematen duen leihadurari bizkarrez, eta Juliak ezin dio aurpegia ikusi Martinengana, liburutegiaren angelura, itzulia duelako. Besoak utzirik, gorputzetik zertxobait aldenduta, eskuak zabal irauten du une bat Juliari Mirarien Ama Birjina gomutara ekarri dion jarreran, eta hausten auzartu ez den eta Martinek errespetatu duen isilunearen ondoren berriro: “Keinu bat eginez gero, haren atzetik joango nintzen”. Luzea da osteko isilunea, merkantzia tren baten triki-traka hotsak ahituan ematen duenaren antzekoa, eta hitza berriz hartutakoan “Ezin dut beste ezertaz pentsatu” dio etsipena indartzeko hain berea duen aieruaz, uretatik aterako balitz bezala burua astintzekoa, erakusten dioten sinetseza aurpegiratzen diela. “Ez da egia, sinesten dizugu” dio Juliak jarraitzeko akuilatuz, eta bulta batez erregutan eduki ondoren abiatu egin da atzera suhar narrati-boaren izpirik galdu gabe, esanez aireportuko sarrera kontrolean ez zutela hurbiltzerik izan emakume urtetsu talde batek gizona erdian hartu eta turistek ohi dituzten galderez josi zutelako. Parean jartzeko konpondu

omen zen, bi lerro zeudelako, baina zoritxarrez kontrolean geldiarazi egin zuten eta erremediorik gabe pasatu behar izan zuen garraio uhalean ikusteko esperantzaz, baina alferrik itxaron zion bere puskak abandonatuak ziruditen maleten artean zenbait itzuli eman ondoren ere, senarraren babalorre aurpegia ikusi zuen arte atzamarra zut airean zirkuluak egiten, pasatzen uzten ari zela jakinarazteko saioan. Atartean sumatu zuen ostera. Izugarri erakargarria ez, are gehiago, aski itsusia zen emakume ilehorail oxigenatu bat zeukan esperoan, ez da oroitzen nola zihoan jantzita, eta oxigenatua izateko azala hagitz esnekara zuena, albinoa ia. Adeitasun erakutsi urrikoa izan zen diosala, eta emakumearen ia lehen hitza nora zihoan hainbeste libururekin galdetzeko izan zen. Martxelok eta berak ere ez zioten elkarri berebiziko eztitasunik eman. Esker handian duela dio bidenabar, bere burua desenkusatzeko ahaleginean bezala, “Ona da” esatera koan, baina odola irakiten jarri ziola, erretolikan hasi baitzen arretarik ezaren kontuarekin, hiru aldiz utzi zuelako maleta sudurpetik pasatzen eta lehenbailehen alde egin nahi zuelako, xuhurra baita, aparkalekua ez ordaintzearren autoa gaizki utzia zuelako. Bidaide izan zuen gizonak, ostera, pena eman zion, emaztea zirudien emakumea hain zatarra, hain takarra, hain garrastua zeukalako. Kanporantz abiatzen ikusi zituen eta gauza bera egin zuten Martxelok eta biek metro batzuk atzetik diosal egiten eta besarkadak ematen ari zen jendetzaren artean, ingeleseko ikastaroetatik itzultzen ziren neska-mutiko asko eta harrera egitera etorriak zitzaizkien familia osoak, noiz ere gizonak eta bikotekideak buelta eman zuten bat-batean, aurrez aurre egin zuten topo, eta agurtzea irten zitzaion Harriri. Adierazi nahi ziokeen berriro ikustea desio zuela, bizitzak beti duela hondatu gabeko aukeraren bat eskaintzeko, hainbat gauza, begirada batekin esateko sobera, aitortu du Juliari hunkigarria egin zaion irribarre zabalean, baina hark ez ohartuarena egin omen zuen, beldurtuta, nonbait, kasu eginda ilehori oxigenatuak ematen ahal zion tratuaz; berak, bederen, andreak jakin goseko begirada beldurgarriarekin iltzatzen zuela sentitu zuen. Ea nor zen bere gizonari agur esateko pentsatzen zuen noski eta ez zuen beste ahaleginik egin, burua ez biratzeko deliberoa hartu zuen, ziur zegoelako zertatik ezagutzen zuen galdezka ariko zitzaiola gizon koitaduari, baina azkenean ezin izan zuen irrika gorde eta haren begiratuarekin egin zuen topo, gizonarenarekin, aurpegia itzuli baitzuen hark ere. Ez dakiela adierazi ziona zehazten, dio esku bat altxatu eta airean hatz puntak bilduz. Lotsaren,

atsekabearen, eroritasunaren haragitzea izan omen zen. Hura ez zen Heathrown ikusi zuen gizon alai, lasai eta atsegina, eta pena sentitu zuen hargatik, senarragatik sentitzen zuen amorraren neurrikoa, bizkarretik helduz xaloxamur jartzen denean ohi duen bezala txantxetan hasi baitzitzaion, “Hara, lagunak egin dituzu Londonen” eta antzeko babokeriak, mozteko, autoaren bila joatea komeniko litzaiekeela, berak maletarekin eta poltsekin itxarongo ziola esan zion arte. Zain omen zegoen beraz bikotea berriz azaldu zenean, emakumea lehen gizona bizpahiru pauso hurren, orgatila kargatua bultzaka zekarrela. Gizona gelditu egiten da aurreneko taxiaren parean emakumeari aparkalekurantz jarraitzen utziz, konturatzen da ordea bakarrik doala eta gelditu egiten da. Itzuli eta “Zertan zaude” diotso, edo zehatzago, oihu egiten dio taxi baten ate irekiaren ondoan dagoen gizonari, bere puskak kargatuta ordurako. “Aspertu egin nauzu” erantzun dio ez ozenki, lasai, eta emakumeak hitz lazgarriak oihukatzen dizkion bitartean taxian sartu da eta atea ixteko besoa luzatzerakoan bien begiradak, “harena eta neurea” gurutzatzen dira ostera. Denbora eman izango ziola, dio, sartu eta bere aldamenean jesartzeko, baina ez zuen egin, jakina. Zaflada bat izterrean damuaren seinale. Orain egin egingo zukeen. “Zurekin noa” esango ziokeen, zalantza izpirik gabe, orduan ezin izan zuena, burutik pasatu ere ez zitzaion egin apika, ez zegoelako engoitik Londonen, Loiun zegoen eta Martxelo auto garbituberrian azaldua zen. Bere ohorez txukundu zuela esan zion, eta abioari eman bezain laster gizon bizarduna Londonen ezagutu zuen ala lehenagotik ziren ezagunak galdetu zion, izatera posesiboa ezkututzen ez zion adarreko doinuan, amorru batean jartzen zuela esan behar izateraino. Eta hori Londonen faltetsi egin zuela ikaragarri, hainbestearaino non itzultitakoan aitortzeko asmoa izan zuen samurrago eta oroz gain irekiagoa izaten saiatuko zela.

Mahai baxuaren aurrean makurtuta, tabako paketearekin jolastu du; zigarroa atera eta hatz biren artean hartu, erretzailea ez den arren pizteko asmoa balu bezala. Sudur azpian jarri eta usaindu. Ez du inoiz atzenduko begiradaz, ahotsaz eta usainaz maitemindua den gizon hori. Ziur omen da haren patua errotik aldatu duela, horregatik sentitzen da gertakizun horren ondorioz hari lotuta, harenganako arduraz betea, eta badakiela ukaezineko lekua hartu duela haren bizitzan. Horrela dio Martini eta Juliari txandaka begiratu, txundigarria gertatzen den zorionaren eta etsipenaren bitarteko irribarrea ageri zaiola ezpainenetan.

Azkenik eguzkiak tartea egin du hodeietan eta dirdiraka azaldu da. Honenbestez bizitu egin da lorategi zarpaildua lehengo edertasun joriaren aztarna berreskuratuz euri gozoaren ostean, nahiz esparrua inbaditzen duten kala setatiak beste lore askorik ez duen. Urdin kolore biziko hortentsia lahar pare bat ageri dira sasoian baina inausi gabe, eta orain, ongarrifaltan, arrosa nabarrekoak. Martinek sarreratik ibaira daraman bidexkaren luzean erein zituen bioletak eta pentsamenduak ez dira loratzen gorroto dituen txoriengatik, berak dioenez. Txoria erruz dago, larreaz jabetu den katu bikote kaletarrari jaramonik egin gabe belar artean mokoka dabiltzan txollarreak eta lau zozo bai gutxieneko, usoak bezain handiak.

Leiho zabalek ez daukate gortinarik, aspaldi kendu zituen Juliak oso zikinak zeudelako garbitzeko asmoz, bai garbitu ere, ez ordea lisatu, denborarik ezin hartuta. Klaritatea turrustaka sartzen da hortaz, sala alaituz, berez argia izanagatik eskandinaviar estiloko altzairu funtzionalez baitago hornitua gainerako geletan ez bezala, Martinen aitonaren garaikoez baitiraute horietan, eta astunak, ilunak, gogaikarriak iruditzen zaizkio Juliari balio handikoak izanagatik, antza, liburugelakoak batik bat, benetako liburugelakoak, biblioteka noblea esaten dioten salakoak alegia. Biblioteka noble hori areto zabala da, ganbera itsu bat dauka, alkoba, larruzko sofa batekin, hartan zarratzen da Martin idazteko arazoak argudiatuta. Batez beste atsegina zaio etxea Juliari, eroso delako, zainduago nahi lukeen lorategiak lana egiteko aukera ematen duelako, Petrof piano buztanluzea daukalako, hainbestearinokoa non pentsatu ere egin baitu Martini atxikitzen duen gauza bakarra dela iraganeko maitasunaren aztarnaz lekora, eta beren harremanak etorkizunik ez duelako ari dela etxearekiko loturak eteten. Horregatik utzi dio lorategiaz arduratzeari, garai batean hain gogoko zuen eginkizuna, ezinago ederra eduki baitzuen, lanaren barealdiak ureztatzeko eta belar txarrak kentzeko profitatzen zituenean. Harrik ikustarazi zion, duela zenbait, bera konturatu gabe zegoena, pena ematen zuela hain utzia ikusteak, eta txantxetan ari balitz bezala “Maitasunik gabeko etxean lorerik ez” bota zion. Eta berak isilik iraun zuen. Neurri batean lotsatuta, harritzerainokoa, bere egoera sentimentala hain nabarmena zelako.

Bestetan bezala, ez daki zer esan. Harrik beregana itzuli du burua eta kexatu egin da ostera: “Ez nauzue seriotan hartzen”, ahots naturalez, soberakorik gabe. Zer erantzun? Ez duela bere maitemintze tupustekoa sinesten eta tristea dela Martxelorenganakoaz agerira ekartzen duena, eta patetikoa

berriz idazle trabatuari istorio bat iradokitzeko asmoa? “Noski sinesten dizugula” dio Martinek plurala erabiliz, eta ondoren, besaulkitik altxatuz, “Hasiera prometagarria”, nahikoa eta gehiago iradoki diola erakusteko agian. Horaila du ilea berak ere, baina bakana eta tentea, laztua bezala. Harriren alaba bezala nerabea zela sartu zuten collegetik igortzen dizkioten marra horibeltz zabaleko albornozetako bat dauka soinean eta church zahar handiak galterdirik gabeko oinetan. Azken boladan izaten duen eite deitoragarrian. Maizterra edozein momentutan azal litekeela eta ez litzatekeela komeni itxura horrekin harrapatzea dio hain zuzen, albornoza estutuz eskaileretan gora abiatu baino lehen. Harrik ere alde egin beharko du laster bioestatistikari buruz ematen duen mintegiaren ordua aurreratu egin diotelako. Mahai baxuaren gainean Martini hain gustukoa zaion pantxineta, arratsaldez bisitatzen dituelarik Harrik ekartzen duena. Lagungarri hartzen duten tea egitea erabaki du Juliak.

SUKALDEA ERE NAHIKO ZAHARRA DA, etxearen berezkoa ez izan arren. Handia da antzinakoen gisan, zurezko mahai luzea dauka erdian, ekonomikoa esaten zitzaien sukalde haietakoa ere bai, labe handi batekin, eta lehengo arasan egunero erabiltzen duten bitrozeramika modernoa ageri da. Pitar elektrikoan berotu du ura, nazka ematen dioten zenbait lekutan tearen pigmentu marroi kenezinak dauzkalako teontziak, ahokoan bereziki. Pozik ekarriko luke berri bat, baina Martinek inoizko gauzei mirespen larregia izateaz beste, badu burges puritanoek daukaten trasteak irauarazteko joera ekonomoa, eta gaizki irudituko litzaioke halakorik egingo balu. Tea egiteko arauzko prozedura jarraitu du. Teontzia ur irakitan pasatu bero dadin; tea ipini, koilarakadatxo bana eta beste bat teontziarentzat, ura bota eta bost minutu zehatz itxaron, Martinek harraskan pilatuta dauzkan ontziak garbitzeko profitatuak. Txorrita itxita ahotsak entzun ditzake salan, xuxurla hutsa, ahapeka ari balira moduan, bizkarra emandako guztietan erabili ohi duten era estalian. Bere onetik ateratzen zuen garai batean, orain ez.

Salara bueltatu denean ezin dotoreago aurkitu du idazlea. Polo beix bat, kolore bereko harizko galtzak, alboko loturadun oinetakoak ispiluak bezain distiratsu eta Loeweko jaka zeta gordinekoa, papar hegal, eskumutur eta patrika larruzkoekin. Ia guztia musteko. Jaka guztiz da ederra, behar duena baino gutxienez neurri bat handiagoa izatea. Ohartarazi zion erosi zuen egunean baina ezinezkoa omen zen aldatzea, soinean ekarri zenez. Iritzi berekoa da Harri, zoragarria dela aitortuta ere ezin duela ulertu

nolatan erosi zuen hain nasaia, eta berak, jaka gorputzera egokitzeko aurrean gurutzatuz, amagandik jasotako ohitura txertatuari jarraitu zaiola dio, txikia ez geratzeko.

Tea zerbitzatzerakoan, berria ez den polemika: esnea, gehitu egin behar zaio teari, ala aurrena bota behar da? Harrik piztu du, ez baitaki iragan astean Martinek teontzia harraskan hustu zuela galdera horrek sortu zion amorrazioan. Julia ziur zegoen esnea teari gehitzen zitzaioela irakurri zuela, prozeduraren zergatiaz gogoratzen ez zen arren, Martinek berriz bestera zela uste zuen. Ondorioa gai horri buruzko eztabaida izan zen, eta arrazoa nork zuen erabakitzeko lehendabizi Martin eta Julia bera gero “Five o’clock tea” bilatzen saiatu ziren lortu gabe, eta Martinek liburuak apaletaratu ez baina ezkutatu egiten dituela leporatu zion, ezin onartuzko akusazioa, eta liburutegia katalogatzen hainbeste ordu emanda gero, ernegazio gaizto batek hartu zuen. Oraindik ahakar haren osteko kalteen inbentarioa egiten ari direnez, ez dakiela dio Juliak zeken. Harriren teoria da, Harri beti zientifikoa, logika hutsa, lehendabizi tea bota behar dela, elementu ezinbestekoa eta nagusia izanik, zeini osagarria gehitzen zaion, esnea, hala dio, kontuan hartu gabe, nahiz bere garrantzia izan, nahasketa kontrolatzeko eta bereziki esne gehiegi ez botatzeko modurik errazena dela. Arrazoi estetikorik ere aipatu du: te beroaren gainean esne hotza isuriz osatzen den hodei txirikorda zoragarria. Martin estetak lehendabizi tea zelako iritzia gailen jartzeko erabili zuen ergelkeria bera. Baina oraingoan zeharo lotsagabe, zergatiaz oroitzen ez bada ere hurrenkera batekoz bestera dela dio, alegia, esnea lehendabizi eta gero tea, “Ezta baietz?” Juliari begira, eta zernahi gisaz ez dagoela alde handirik batera edo bestera egin, posible dela bizitza lehendabizi tea ala esnea ote den zalantzarekin. Martin bakezalea. Bi moduak erabiliz gustukoa erabakitzeko moduaz hitz egin dute, eta Julia sumindu egin da, Martin, amore ematea kostatzen zaionarekin, hain malgu eta adostaile ageri delako, arrazoa penthouse neska azaltzear dagoelako denez eta ez duelako nahi muturtua eta giro txarreko ikus dezan. Gogoia egin zaio izan zuten haserrearen xehetasun guztiak Harriri kontatzeko, Martinen ume izaera erretxin eta zitala baino gorrotagarriagoa baitzaio hirugarren pertsonen aurrean bere burua kontrolatzeko gaitasuna antzezten duenean.

Martinek, maitasun erakutsietan hain zimurra izanik ere, esku bat pausatu du Juliarenaren gainean esaterakoan, irribarretsu, edonola ere bizi litekeela zer ote den lehendabizi, esnea ala tea zalantzarekin, eta Harrik

bigarren ahotsa eginez besterik litzatekeela arrautza edo oiloarena balitz, eta barre egin dute biek. Histerialdiak dauzkala adierazteko. Alde egitea erabaki du, inoizko batean ostegunetz lo bertan egiten zen arren. Oztetara joan dela ama, eta ez duela Zigor bakarrik utzi nahi. Ez daki zergatik bururatu zaion gezurra ez ezik sinesgaitza den aitzakia hori, ama etxean ez edukitzea ez baita inoiz arazo izan hemen geratu ahal izateko, ahizpa alboan bizi du eta mutikoak honen etxean ematen duenez ia egun osoa lehengusuekin. Esango luke joateko erabakiak poztu egin duela Martin, nahiago du noski bakarrik geratu bere maizterrari behar bezalako harrera egin ahal izateko. Harrik gogoia irakurri dio: “Bakarrik uzten zaitugu zure play-boy neskarrekin”, hala berean altxatuz bere larruzko maleta berdearekin. Berandutu egin zaiola eta masterreko ikasleak intrantsigenteak omen dira arruntean.

Ez da aurreneko aldia Harri eskua ezkerreko besapera eramateko keinu horretan harrapatzen duela. Martinek ohartarazi dio orain: ea zer duen hainbeste ukiturrekin. Arrautza adinako ganglioa omen du eta inork jaramonik egiten ez. Esku bat heldu dio Martini hazta diezaion, baina ez du nahi ikaratu egiten delako, eta Juliari uzten dio atzamarra luzatuz pare bat zentimetroko kozkor gogorra ukitzen. Martxelori erakutsiko ziola noski. Erakutsi dio, ez alferrik, haren ustez ez omen da ezer, hipokondriakotzat hartzen du. Orduan, bere gizonak hala baldin badio ez dela deus, arrazoitu du Martinek, sendagilea da azken finean eta lasai egon behar luke ukitzeari lagata. Pediatra da ordea, eta ez onena. Maletatxo berdea lurrean utziz, kozkorra berriro uki diezaion saiatu da Martinek atzealdean ezkutatatu dituen eskuak hartuz, besarkatu egin du egin ahalean, borrokan hasi dira haurrak irudi.

Haien iskanbila entzun du Juliak te zerbitzua garbitzeko aitzakian babestu den sukaldetik, Martin barrezka ez diezaion kilikarik egin eskatuz, bestea kexu takarra dela eta min handia ematen omen diolako. Nazka ematen baitio demaseko kutuntasun horrek, alditxo bat iraun du sukaldean, eta osteria salara itzuli denean otzanduta aurkitu ditu, maistra zorrotza azaldutakoan konpostura berreskuratu dute. “Ez dit minbizia ukitu nahi” kexatu da Harri intzirika hasteko plantak eginez. Horrelakoetan susmoa datorrkio ez ote diren biak oheratu izan noiz edo noiz. Beroriei ere galdetu izan die, txantxetan hartu ahal izateko moduz, eta sekula ez banaka zuzenean. “Ziur nago zuek biak larrutan eginak zaudetela”, trufa moduan botea jolasean ikusita. Ukatu izan dute beti intzestua izango litzatekeela esanez,

berak direla gizon-emakume eder osasuntsu eta buruargiren artean haragikeriarik gabeko harreman sanoa posible dela egiaztatzeko froga, baina Juliak susmoa du egin dutela noizbait. Zehatzago esanda, ziur dago egin zutela behin.

HARRIK, LORATEGIRA ORDUKO: Zer moduz mutila, idazten al du? Fun-tsean galdera erredundantea da, idazten diharduenean baino ez baitago ondo. Idazlearen gaixotasunaren ezaugarria da sormen lanaz lekora beste pozbiderik aurkitu ezina. Antzeko zerbait jaso dio Sándor Márai oraintsu. Horregatik nahiago du idazten, ondoan egotea errazago gertatzen zaio-lako, bizirik sentitzen duelako behintzat, pozik zorutzen ere bai, bide onean ari dela uste duen bakanetan. Horregatik bakarrik nahi luke idatz dezala. Harriengan, aitzitik, idazlearen ospea konpartitzeko desira sumatzen du. Esan ohi du pena ematen diola talentua alferrik galtzeak eta beti dago zer idazten duen begira, bere zorioneko nobelarekin aurrera doan, noiz bukatu behar duen galdezka. Besteak berriz saihetseko erantzunen bidez egin ohi dio ihesi, hori gezur biribilak esaten ez dizkionean, ikasle txarren modura, dagoena baino aurrerratuago dabilela sinestarazi nahirik.

Juliak ziur daki gaizki bizi duela inguruko jendearen itxaropen eta eskakizunei erantzun beharra, arrakastako nobela bat idatzi ezina huts egitea dela sinetsita. Aitortu izan dio horrelakorik inoiz, eta ez egitera ere kontentzia dago uste duela idazteko gai den neurrian estimatzen dutela, eta aldi berean ez dagoela ziur talenturik aski ote daukan nobela izena mereziko lukeen ezer burutzeko. Juliak baietz esango luke, baduela dohain hori, behar beste eta gehiago nobela duin bat idazteko, baina pozik legoke denbora akuarelari emango balio, horrek zorionsuago egingo baldin badu.

“Gure mutilaz” aspertua dagoela esan dio zehaztasunetan sartu gabe. Benaz ez dio sekula argibiderik ematen nahiz behin baino gehiagotan tentatua egon den haren alderdi ezkuturen bat azaltzeko, dion debozio larregia neurrira ekartzeko. Gero poztu egiten da horrelakorik saiatu ez izana, alferrikako lasaibidea besterik izango ez litzateke, eta bera gorrotatzea baino lortuko ez lukeelako hartaz gaizki esaka jardungo balu. Martinen izateko moduaren alderdi ezkorrak jenioaren alderdi ilunari egozten dizkio bestalde. Azken batean, Martini buruz daukan irudi idealizatuak sutu egiten duen arren, pena ematen dio lausotzeak. Uste duela badoala bere nobela horretan aurrera pixkanaka erabaki du esatea, egunero ikusten duela lanean, isilduz bere bata itsusia jantzita ordenagailu piztuaren inguruan pasatzen

duela eguna jarri eta jaiki, jarri eta jaiki, ikasle zigortu bat bailitzan lanerako ganorarik gabe eta lanaz ostera beste ezer egiteko gai ez; doirik irteten dela, ozta irakurtzen duela, orduak galtzen dituela telebistaren aitzinean zaborra ikusten, eta polito edaten duela.

Hala berean gorde du irakurri dizkion lerroen arabera nobela batekin ari denik esan litekeen ere zalantza daukala. Isilean gorde behar du, besteak beste ezkutuan sartu zaiolako ordenagailuan.

–Aurrera doala apurka uste dut.

Begiak zirrituta begiratu dio, erantzuna zein neurritan den saihetsekoa jakitearren iruditu zaio, eta egiari zer edo zer leialago izatea erabakiz diotso posible dela azken boladan trabatuta egotea. Bere ahalegin perfektionistagatik, erantsi du, ez dezan pentsa haren jeniotasuna zalantzan jartzten duenik, bai zera.

–Laguntzerik balego.

–Lan horretan bakarrik dago.

–Edozer gauza egingo nuke.

Idazlearen etxerantz jiratuta orain, sinets eginda berresten du ia barrugarria gerta litekeen seriositasunez “edozer gauza” burua bi aldeetara higituz, ez dakiela zenbateraino den egia adierazteko gisan.

Badaki egiatia dela, eta horregatik beharbada, gainez egin dio zornea sortzen ari zaion sarkasmoak: “Edozer gauza egingo zenuke, egunero eramanez ez beste”. Gogoz kontra ordea, ez baitu oso atsegin jenioaren lagun dohakabea delako ideari haize ematea, baina berandu da jadanik atzera egiteko. Hori da Harrik pentsatzen duena, daukan talentua alferrik galdu behar ez lukeen jenio handia dutela Martin, eta inguruko guztien zeregina dela bere obra nagusia munduari ematen laguntzea. Bera da idazlearen berme nagusia izateko patu ona eta gaiztoa egokitu zaiona. Denek diote hori, Harrik, Martinen amak, arrebek, lagunek, berarekin hobeto ikusten dutela, orekatuago, lasaiago eta pazientzia handia izan behar duela, hori ere denek dakitelako, alegia, ez dela samurra artista batekin bitzitea.

Tanke itxura duen makina gaitza dabil maniobratan Harriren auto aurrean, irteera oztopatzen. Itxaron egin behar beraz. Egunean baino egunean urrunago luzatzen ari dira bailararen hondoan mendi mazela ildotzen duen zauria abiadura handiko trenari bidea irekitzearren. Beste harakiri bat dio Harrik, bekozko. Arestian hitz egin dute horretaz, etxea

garraibide korapilo baten erdi-erdian geratuko dela, inguruneari eutsi nahiaren eta Paris edo Madril hiru ordura eduki nahiaren arteko kontrakarrean. Emakume biak batzen ditu hondatu den paisaiaren nostalgiak. Ez zuten ezagutu dauden lekutik ikusmira duten ingurunea inon diren zoragarrienetakoa zen garaia, baina bai baserriek oraindik zutik zirautenekoa, ezagutu zituzten sagasti zabalak, tabakaleratik ekarritako tabako hondakinez ongarritzen ziren baratze naroak –ahantzi ez zaien usaina hedatzen zuten–, lorategi ederrez hornitutako Belle Époqueko jauregitxo dotoreak.

Orain ozta ageri den berde zati benazkorik Antondegiko mazelaraino. “Sagastizabal ez da existitzen” dio Harrik. Errepidearen bestaldera Elektra fabrika dagoen eremuan Sagastizabal baserria zegoen, Juliaren jaiotetxea, han bizi izan zen zazpi urte bete arte, ibairaino iristen ziren lur gehienez desjabetu zituzteno, aita ez baitzuen gainerakoa saldu beste erremediorik izan. Diru gutxi jaso zuen, batetik sailen birkalifikatzea gerora etorri zelako eta prezio finkatuak ez zuelako zerikusirik merkatukoarekin, baina batez ere oinordekotzari uko eginez eskuratutakoa senideen artean partitzea zegoikiola erabaki zuelako, oinordekoaren betebeharra etxea irauaraztea zenez eta ez berak egin zuen bezala saltzea.

Juliak harrotasunez hartu izan zuen beti portaera hori, aita lehenda-bizi baxurako arrantzale izatera–itsasorako grina eduki zuen beti eta itsasoa izan zen bere asturua– eta etsipenez, ontzi baten jabe izateko ametsa burutu zuenean, beste batzuk erretiratu ohi diren sasoiari galdategi batean lanean hastera eraman zuena amak ezin zituelako jasan senarra itota azaltzen zen amesgaizto errepikariak. Halabehararen bitxikeriak, galdategian ari zela txipiroitarako txiki bat erosi zuen, lanetik irtendakoan eta asteburuetan arrantzara joateko, eta goizaldera eguraldi onarekin eta itsasoa bare irten zen igande batean batela hutsik azaldu zen Ziburu parean. Gizon zintzoa oroitzen du Juliak aita. Harro zegoen Sagastizabaleko diruak senideen artean partitu zituelako eta ama ere hala zegoela uste zuen, baina azken bolidan aipamen mingotsen bat entzun dio haren portaerari buruz, funtsean dotoretasunaren prezioa beren lepotik ordaindu zuela adieraziz, eta haren frustrazioa atzeman izanak ikaragarri tristatu zuen.

“Sagastizabal ez da existitzen”. Ahots sentikorrez esan dio Harrik, bere sentimenduak asmatu izan balitu bezala, eta bizkarrean pausatu dio eskua, berari ere hunkigarria gertatzen zaion keinua, ez dutelako amultsutasuna ohi-turetan. Esaerak aforismo kutsua hartu du bientzako, gutxi gorabehera

ezintasun nola edo hala onartua erakusten duena. C'est la vie eta se acabó lo que se daba horien artekoa. Gureak egin du: Sagastizabal ez da existitzen.

Garai batean korta, mandio eta biltegi bezala erabiltzen zuten harrizko eraikin txikiak eta baserriari izena ematen zion sagastiaren zati batek diraute zutik, norenak diren ez dakienak. “Zer edo zer geratzen da” dio esate aldera, eta Harrik burua alboetara astiro higituz: “Ez da asko”. Jelostu ere egin zitzaion Julia lasto koloreko ilegatik. Orain biziki motza darama, geruzatan gastatua, buruaren eta gorputzaren arteko araberakorik eza areagotu egiten diola, egia baita buru txikia duela eta etengabe higitzen du gainera hitzok nabarmentzeko, kolpe txikiz, txoriek bezala esan ohi du Martinek. Euskal emakume petotzat dauka bere burua ordea, Artetak margotu zituenen ereduakoa, iharra gerritik gora eta sendoa behera. Juliak ederra ikusten du. Adin batetik aurrera, erosotasunaz landara, hobe dela ile motza deritzo, seduzitu gura patetiko baten ezaugarria egiten zaio luzea, baina beti uzten du geroko berea, sendoa eta kizkurra, beltza, aurreko aldean gehienbat piru zuriz tartekatua eta hala ere tindatu nahi ez duena, mozteko ordua.

Juliak ez daki kozkorra aipatu ala ez berokiaren azpitik besazpia haztatzeko keinu ezkutuari ohartzen denean. Pentsatzen du hobe lukeela espezialista bati begira araztea ukituka ibili beharrean, baina ez dio bere kezka alferrik erantsi nahi eta, azken finean, ez da ume bat. Eskua oratu dio, beroki barrendik atera dezan. Abaituari hitzordua eskatu behar liokeela diotso, nahiz ez den deus izango senarrari hala iruditu zitzaionez. “Ez duzu besterik pentsatzeko motiborik”. Ez dio berehalakoan erantzun. “Nire senarra, gizajoa, –neke etsia agertuz– maisua da ikusi nahi ez duena ez ikusten. Ez lidake ikusiko sudurretik aterako litzaidakeen tomatea ere”. Pausa berri baten ondoren aitortu dio azken boladan zenbat eta nahitasun adierazpen gehiago egiten dion, gutxiago desiratzen duela berak.

Harriren zinezkotasuna obszeno samarra iruditu ez ezik deserosoa gertatzen baldin bazaio, ordaina eskatzen diolako da oroz gain. Ez du nahi senarrarekin duen harremanaz mintza dakion, berea Martinekin nola dagoen kontatuz erantzun behar liokeelako, eta ez du zertan. “Baina ez nago triste” dio Harrik, zeharo bestelakoa erakusten duen irribarrez. “Ilusio bat dut orain”. Juliak ez du ulertu zertaz ari den: “Hori zorzea; eta zein ilusio da hori, jakin baliteke?” Irribarrea berriro erantzuterakoan, eta Juliak benetan ez daki txantxetan ari den: “Aireportuko gizonarekin topo egin izana, emakumea!”.

“Zuk ere ez didazu ezer sinesten, beste idiota horrek bezala”, etxea seinatuz. “Ze, ez dit sinesten, ezta?”. Galderak adieraz lezakeen arren Juliaren sinesgogortasunak ez duela Martinenak bezala mintzen, ez zaio axola. “Ez dakit”, ihes egiteko esana. Beldar mekaniko erraldoiak bira egin du ihesodi bertikaletik ke beltz bafada lodiak jaurtiz, eta Harrik mugitzen ahal du autoa engoitik. “Orain bai berandu dela” atea irekitzerakoan, baina ez da sartu, azken agurrerako hitz aproposa aurkitu nahi balu bezala. Errepidera daramaten eskaileren buruan daude. Juliak ez ditu aspaldi erabili etxerako bide laburrena badira ere. Klarionez marraztutako gorpu baten inguruak iraun zuen luze bere oinetatik pauso bira. Ez dauka gogoan haatik zenbat zauritu zituzten atentatu hartan, hildako bat baino gehiago egon zen. Elektrako langileren bat bai noski, trenetik jaitsita fabrikara zihoana. Izugarria izan zen leherketa. Etxea dardarazi zuen burrunbari lazgarriagoa iruditu zitzaion isiltasun sakonak jarraitu zion, eta gero garrasiak, geroago poliziaren sirena hotsak, eta anbulantzienak eta suhiltzaileenak. Uste du erne egon zela hurrengo egunetan irratitik zaurituen egoerari buruzko berriak jakin nahirik, eta orain oroimen lausoa baino ez zaio geratzen, amesgaizto baten hondarra.

Emakume narras batek protesta egin die zakarki pasadizo erdian daudelako. “Coches de mierda” da esan duen finena, eta ez diote jaramonik egin. Harrik, autoan sartu aurretik, konfidentzialki esateko eran xuxurlatuz: “Jende mingostua eta intrantsigentea, bizitza gaizki doakiolako”. Agian berak ere Martin duela gogoan bururatu zaio. Dena dela, abiatu aitzin, haren aipua egin du. “Zaindu ezazu”. “Zaindu zaitetz zu”.

BAKARRIK DAGO AMA ETXEAN. Iritsi berriak dira Otzetatik eta Zigor ahizparenean geratu da. “Ez zintudan espero”. Ez zaio iruditu nahigabeturik esan duenik, agerikoa izan den arren ikusiak ez duela poztu. Juliari ez dio onik egiten horren esplizitu azaltzea Martinekin behin betiko bizitzen jaretzea nahiko lukeela. Ulertzen du, baina itsusia egiten zaio, Martinen izateko modua aldera utzita –arraroa deritzo gutxieneko– familia onekoa izateari baino begiratzen ez diolako. Inguruan daukan munduko hoberena: jende errespetagarria, diruduna eta nazionalista betidanikoa. Amorratu ere egiten du, hobeto esan, dezepzionatu, Martinen amari, atso lepotente zaharmindua, “Klase handikoa” dela iriztea eta hartaz ari denean “Doña Sagarrio” esatea, auzoan sortuak diren gehienek bezala bestalde.

Hozkailua ia hutsik aurkitzearen nahigabea, sentimendu maskulinoa guztiz, onartzen du. Tipula tortilla egitea erabaki du eta arrautza jotzen duen bitartean datorkio burura aspaldi gabe pentsaezina litzatekeela tranpaduran afari itxurazko bat prestatzeko lain ez aurkitzea. Gizon batekin ezkondu gabe bizitzea bezain pentsaezina. Umetan, tranpadura beti zegoen jaki hondarrez betea. Haragi egosia edo bakailoa tomatearekin, patata tortilla zati bat. Gose da. Arrautza tipularekin mamitzen ikusitakoan Martinek gibelurdinak erosi dituela etorri zaio gogora eta nostalgia sentitu du. Orain damu da alde egin duelako, zehatzago, frustratua sentitzen da ez delako amorruari gogor egiteko gauza izan Martin hain pozik ikusita maizter amerikarra noiz azalduko. Hori baita beste ezer baino gehiago sentitu duena, amorrua. Zer egin ote duen galdetzen dio bere buruari, afaritara gonbidatzen ausartu ote den. Ezetz uste du, ehiza taktikak astiroago baliatzeak direnez.

Sukaldeko leihotik etxea ageri da, muino txikiaren gainean zero urdin kobaltoa ia beltzaren kontra islatua. Ez dakusa leiho argiturik, baina piztua dago jadanik lorategira ematen duen atekoa. Urrundu denerako etxearen nostalgia nabaritu du. Pianoa faltetsi ohi du bereziki etxe itsusi honetan dagoelarik, eta edukiko balu ere ezin joko luke auzokoak haserretu gabe, paperezko horma hauekin. Bitan datorkio galdera bera epe laburrean: zein neurritan izan da Martinen estatusa oztopo, harekin behin betiko bizitzen jartzeko? Bere adinarekin ez da honez gero maitasun erromantikoaren defendatzaile sutsua, baina beldur dio nahitasunetan interesatua izateari. Ziur zegoen Beauvoirren *La vieillesse*-n irakurri izana, pertsonak sudurra edo begien kolorea bezain berezkoa duela dirua –consubstantiel alegia– eta gizon baten estatusagatik eta honen ondorio diren segurtasun, ongizate fisiko eta abarreatatik erakarria sentitzeak ez lukeela zertan duintasun gutxiagokoa izan galaitasunaz maitemintzeak baino, nahiz ordu erdi eta gehiago eman duen testu zehatzaren bila aurkitu gabe. (Hitz bitxi batekin bai, egin du topo, gribouillisme –fait d’aller au devant des ennuis qu’on cherche à éviter– Martinek daukan makurdura, bere burua zahartzat azaltzeko joera definitzeko berariazkoa).

Arrautzopila platerean oihal ziratu itsusiaren gainean.

Jatorrizko lauki zuri-gorri-berdeak –betidanikoa izan da, endemas sukaldean, kolore horienganako feblezia etxe honetan– higuatuk daude hainbeste igurtziren medioz. Beti ari zaio amari gorroto duela zamau hori,

ziratuak oro har, aspertua dago kolore eta oihal mota guztietakoak erosten, hauxe erabiltzen baitu beti. Nahikoa txukuna eta aratza izanagatik ez dauka arretarik apaingarriekin, ez zaizkiolako beharrezkoak, eta zamau aldatzeari halatsu deritzo noski. Beste jende baten etxean ondo, Martinenean esaterako. Berean ez.

Zamau laruak Sagastizabaleko sukaldea ekarri dio gogora: erdiraino berdez margotu hormak, armairu eta tranpadura zuriak, hauen helduleku gorriz ongi estaliak (eta kolore bereko zirkulua inguruan, edalontziaren ahoaz markatua), baxurako baforeetan erabiltzen den estilo berean hain zuzen. Afalostean, amak ontziak garbitu bitartean, aitak jesarrita iraun ohi zuen bizkarra hormari emanda, eta oinak egurtoki gainean ipinitakoan bertsoak kantari hasten zen gogoz baina ez oso harmoniatsu, kantatzea gustatu beste desafinatzen baitzuen. Maizenik tristeak ziren bertso korda amaigabea, musika betiberarekin. *Markesaren alaba* eta *Limosnatxo bat* zituen gogokoenetakoak, urosten malenkoniatsu batek hartua zirudien kantuz. Zoriontsua baitzen goserik pasatzen ez zuelako eta alabei berak ezin jaso izan zuen heziketa ari zelako ematen. Nahikarien apaltasunean oinarrituriko ongizatea zen hura, garaiko etsi otzanduan gauzatua. Umetan gorroto zituen kanta horiek, eder zaizkio egun. Damu da haren ondoan jesarrita kantatu ez zituelako, emango luke orain egin ahal izateagatik.

Etxezar. Amaren baserriaren izena. Ez zen bertan inoiz bizi izan, baina bere familiakoek belaunaldietan izan ziren Villafuerteseko Markesen maizterrak, eta hauek haren aitonari, Juliaren birraitonari, saldu zioten. Juliaren aitonak ordurako handia zen diru puska jarri zuen erosteko, zazpi mila pezeta, umetatik morroi bezala zegoen baserriko nagusiak –gizon zintzoa nonbait– lansaritik aurreztutakotik eman zizkionak. Baserrira berriz oinordekoak jaso zuen, aitonaren anaiak, eta gaur beronen biloba da jabea, Juliaren amaren lehengusu baten semea, mutilzahar alkoholikoa, lotsa gutxiko auzo bati lur sailak aldika gaizki saltzetik lanik egin gabe bizi dena. Amak ezintasunez eta penaz jarraitzen du arbasoen etxearen suntsitze prozesua, erdiratu egiten zaio bihotza lur galtze berri baten albistea jasotzen duenean. Gaur, Otzetatik heldu denean, aurreko ostiralean ermita azpiko pinudia saldu zuela esan dio ahizpak, eta larunbatean udaletxeko laguntzaileak lurrean etzanda aurkitu zuela oka artean eta zakurrak hortzikatzen zituen billetez inguratua.

Horregatik zegoen kopetilun eta atsekabetua. Bere ametsa, arbasoek jaio eta hil ziren oinetxea, aitari auskalo zenbat lan urte kostatu izan zitzaiona berreskuratzea da, eta adierazi izan du, hitzerdika badere, senarraren lagunengana jotzeko asmoa erosi ahal izateko, Hamaika soziedadekoen artean lagun aberatsak omen zituelako. “Urliari edo Sandiari eskatuko banie pozik emango lidakete” esaten du, ez daki zenbateraino benetan, aitaren lagunekin ez duelako harremanik kalean tarteka gurutzatzen duten diosal laburra besterik, eta Julia ziur da aita ahalke batean asaldatu litzatekeela itsasazpiko atsedean eternalean, ataka txarrean ere bururatuko ez litzaiokeena, alegia, lagunei dirua eskatzea, bere alargunak egin nahi zuela jakingo balu. Juliak susmoa du iradokizunak direla bera izan dadin Martini dirua eskatuko diona, eta zer gerta ere behin esan zion pinudi ilunez inguraturiko Etxezar goibel hori berak dioen bezala “salbatzeko” adina diru balu, nahiago lukeela etxetxo lorategidun bat erosi Landetan.

Azaldu da Zigor. Berari luzatu dio begiratu lehendabizi, harraskan jarraitzen duen amonari gero, eta berari osterera. Galdera begietan. Juliak badaki beren gogo aldarreak aztertzen dituela, jakin nahi du goibeldu egin duen zerbait esan ote dion amonari. Seriohasun batean dago. Iruditzen zaio gizona egin dela tanpez eta berak baduela horren kontzientzia. Oraindik amaitu gabe omen ditu oporretarako agindu zitzioten lanak, eta erretiratu egin da gelara. Giro ilunetik ihesi.

Ama-emeak ez dira lehen bezain sarri besarkatzen eta besarkatzen direnean ez da berdin. Zurrun sentitzen du orain, eta izutu egiten du elkar ukitzeari higuina har diezaiokeela pentsatzeak. Berari gertatu zaio amarekin, aspaldi utzi baitzion musu emateari, ez daki noiz, eta aldiz, gau askotako ametsa du aitak dei egiten diola, harengana doala korrika eta besarkatu egiten direla. Ama, hain txeratsua umeekin, ezin urrunagoa da fisikoki noiz kokatu jakingo ez lukeen adin batera heltzen zaizkioneko. Horrelako portaera izan du berarekin eta ahizparekin, baita bilobekin ere. Egun, kultura aldaketan poderioz, diosal gisa masailean pot egitea arrunt zabaldu den honetan, Otzetako adineko gizonzkoek ere hartara aurreratzeke ohitura hartu baitute, bitxia gertatzen zaio ama besarka eta musuka ikustea alaben adineko jendeari, eta taldean aurkitzen direnean lotsa sentitu ohi du sarritan, begi bistakoa delako beraiek direla elkarri musurik opa ez dioten bakarrak.

Gogor egin dio nagari amaren ondoan telebistari begira bultza batez jarrita. Bere baitan bakartu eta pantailan azaltzen denarekin zerikusirik ez

du ten kontuez egin du gogoeta: Harriren fantasiak, senarrari buruzko iritzi gordinak. Ez du uste amak ere arreta handirik ematen dionik pantailari. Martinen esanetan, egiazki bere isla den Faustino Iturberenak dira hitzok, antzina beheko suari bezala egiten omen diote so zaharrek, beren pentsakizunetatik irten gabe.

“Zer da “solipsismo”?, gelatik Zigorrek.

Badakien arren, galderari erantzuteko gogo behingoz menderatu eta, beti bezala, hiztegia bilatzeko oihukatu dio. Aspaldi jakinarazi zion, Martinek dioenez, haren iritzia, idazlea den horrekin, mutilak asko errespetatzen baitu, jakituria jasotzeko modurik hoberena ezagutzen ez diren hitzak entziklopedian bilatzea dela. Iritzi berekoa izateaz beste, egia da askotxotan errazak ziruditen galderei erantzun ezinean pasatutako estatusunek ere eragina izan zutela ohitura onuragarri hori ezartzeko, lotsatu egiten zen eta, bere ezagupenaren hutsune handiegiak agerian uzten, edozein aitzakiarekin geroratu izan zuen erantzuna, zartagina sutan edo garbigailuak ura galtzen zuela, askotan galtzen baitu, hiztegia ezkutuan kontsultatu ahal izateko. Batzuetan arazoa ez zen jakituriaren hutsuneak maiztxo sortzen duen berotasun pedagogikoa baizik, gaiak konplexutasun osoan adierazteko behar amazkoa, xehetasunak ematekoa, kontzeptu uztartuak zehaztekoa, kausen kausetan gora egitekoa, mutilak bilatzen zuena irtenbide ahalik eta errazena eta laburrena zela ahaztuz, bere arrazoibideek nahastu eta urduritu egiten zutela gehienbat, lagundu ordez. “Utzi ezazu, ama, konponduko naiz bakarrik” zuen esaten azkenik, galde egina damututa. Zera da orain, batengatik edo besteagatik mutila bere kasa konpondu ohi dela –informatika tresnek lagundu egiten dute–, eta horregatik harritu du “solipsismo” zer den galdetuak. Ez ote den izan harengana hurbiltzeko modua ematearren, dio bere kolkorako.

Ohe ertzean jesarri zaio lotaratutakoan, alditxo bat egin dute berbe-tan. Juliaren momenturik zorionsuenetakoa izan ohi da gizon heldu bat balitz bezala eguneko gertakariak kontu kontari biek ematen duten hori, eta ez luke ohitura galdu nahi, beti berdina izatea desio du, Reggianik kantatzen duen gisan gerora ere elkartzen jarraitzea “Chez toi, ou bien chez moi ou sur à une terrasse” mutilaren hogeitau urteak konpartitzeko, baina pentsatzen hasia da ez dela erraza izango. Bera da bihotza erakusteko zailtasuna daukana engoitik, mingostasuna dariola eta mutilak atzematen diola esango luke. Beste neurri batean noski, bera amarengandik urrundu duen

natura bereko iluneko zer edo zerk aldentzen diola semea. Iruditzen zaio belaunaldi guztietako gurasoen ustea dela seme-alabekiko harremana irekia eta konfiantzakoa izango dela, berek beraienekin izan zutena baino hobea. Julia ziur da berari dagokionez horrela izango dela, baina hala berean daki hobekuntza nola-halakoa besterik ez dela izango, mutila haurra zelarik espero zuena baino txikiagoa dena den.

Ez luke nahi bere aldeko debozio handiegia izaterik ere, zenbait gizonak amari dioten maitasun demasekoa –Albert Cohenek bere liburuan erakusten duena, adibidez–, gainerako emakumeenganako gorrotoarekin bat egiten duena bere iritzira. Izaki zintzurdun hori, dagoeneko bibote zirraborro horaila duena, sabelean eraman duela etorri zaio burura ezustez, eta pentsamendu horrek altxatzera bultzatu du berehalako batean. Semearen idazmahaiaren aurrean jesarri da. Txikiegia mutil batentzat. Berria erosi beharko dutela esan dio, eta ez duela merezi. Arta handiko mutila da eskarrietan, eta eskertua zaio.

“Aizu, ama”, ohean agonduz. Erne jarri da Julia, instintiboki, ziur baita helburua inor frogantzan jartzea duten galdera horietako bat egingo diola, hiztegikoa baino. “Zergatik galarazten zaigu independenteak izan nahi dugun erabakitzea?”. Neke handi bat datorkio, itzeleko gogogaitza, eta ez daki nola erantzun. Oztetatik beti dator frontoian eskuak handituta eta bihotza sentipen abertzalez puztuta. “Zer nahi duzu esatea?”. Ezagun du horretaz aritu direla Torrekuako bazkalondo luzean eta buruz buru jarri nahi duela han esandakoarekin. Nabarmena da mutilaren urduritasuna: “Ez dut esaten independente izateko eskubidea, independente izan nahi dugun erabakitzeko eskubidea diot”. Ernegatu egin da Julia, ahizpagatik, koinatuegatik, Torrekuako guztiengatik, ideologizatu egiten dutelako, eta bere buruegatik ere bai gehiegi utzi duelako haien kargu, aise alde. Mutila erantzunaren zain dago, ezpainak estu, besoak antxumatuta eta Julia ziur da irakurtzen ahal diola berak buruan darabilena. Torrekuakoak zalantza oroz libro dauden euskaldunak dira eta argi daukate. Zer dio berak?

“Uste baino korapilatsuagoak izaten dira gauzak” atera zaio, eta esan duen orduko damutu zaio. Zergatik behar izaten ditu hainbeste hitz, argibide eta xehetasun, ikuspuntuak azaltzeko? “Zuretzat dena da korapilatsua eta, aldiz, gauzak oso xinpleak dira”. Zigorrek esan ziona, Zigor honen aitak, oraindik amnistia mustu berria zela klandestinitatera itzultzeko erabakia jakinarazi zionean eta berak halakorik ez egiteko konbentzitu nahi

izan zuenean. “Dirudiena baino korapilatsuagoak dira gauzak”. Politikaz hitz egiten saltsatu ziren. Hark zioen Franco ohean zendu zela, Estatuaren aparatuak ez zirela purgatu eta denak berdin jarraituko zuela. Horren ximple. Berarentzako ere horrelakoak ziren gauzak, ximpleak: beste ezer eta inor baino gehiago maite zuen, bizitza konpartitu nahi zuen, elkarrekin afaldu eta ohe berean egiten zutela lo amesten zuen, eta jasan ezina zitzaion al-bistegietan bazter batean tiroka hila azaldua zela noiz entzungo zain bizitzea. Horren ximplea. Ez ziren ordea aberriaren alde bizia emateko prest zegoen batek mespretxurik sentitu gabe entzun zitzakeen argudioak.

Orain ere zalantzan da sentimenduak azaldu ala ez, beldur baita semeak ez ote duen pentsatuko ez dela leiala beretarrekin, eta uste horrek ez ote dion beregana iristea eragotziko. Jakin, ziurtasunez, ez daki independentzia euskarari eta bere kulturari eusteko biderik egokiena ote den, baina hala izatera ez du legean kabidarik eta herritar gehiegik ere ez du nahi horrelakorik, bozketek diote. Zertarako nahastu orduan? Kontra daudenak erakartzeko irabazitako autonomiaren erabilera zuhurra egitea litzateke bidea, eta dena dela indarkeria ez da bidea. “Ulertzen al duzu hori?”. Aitarren taxu berbera du, begiak begietan jartzen zitzaionekoa. Isilik geratu zaio begira, eta baiezko keinu aspertu bat erakutsita bertan behera egin du ohean horma aldera itzultzeko. Juliak musu bat eskatu behar zion amak sukaldetik lo egiten uzteko esan dionean, berandu dela eta nekatuta egon behar duela zeharo.

Bainugela aurretik pasatzerakoan ipurdiraino eskas iristen zaion adatsa eskuilatzen ikusi du. Grisa du ilea, Juliarenaren antzera piru zuri-beltz parekatuz osatua eta berdin kizkurtua baina lepotik behera bakarrik, egunez motots estuan lotua erabiltzen duelako. Kezkagarria gertatzen zaio Juliari orain bezala ilea zabal ikusten duenean, sorginei buruzko ikonografia tarteko agian, emetasunaren ezaugarri nabarmen hori horren zaharra den amagan. Zin egin du, hainbeste laudatzen dioten arren, berandu gabe moztuko duela berea.